

Kronika

2020-10-17 Larunbata
7.266 zk. www.kronika.eus

TOKIKOM

KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

370 positibo berri
2.046 hildako EAEn
13.936 positibo guztira* UCIn EAEn

NAFARROAN

523 positibo berri
638 hildako
23.979 positibo guztira UCIn Nafarroan

*HERNANIN 424 (+19), ASTIGARRAGAN 109 (+10)

(Nafarroa Garaia, Salburua)

URUMEA BAILARAKO EGUNKARIA



Zaintza lanen antolaketa feministago baten alde, Emaginek

HERNANI
BERDINTASUNA

2-3



«Elkar ezagutzeko» ekintza, 31n

HERNANI
KANIKA

8



«Lehendabiziko helburua aurreneko fasean hiru aurrenekotan geratzea da»

ASTIGARRAGA-
HERNANI
FUTBOLA

10-11

Sekretupeko kontuak, argitara

Perretxiko eta ondoak biltzeko garaian sartuta gaude, eta Aitor Lasá hernaniarra jakitun da arlo honetan, izan ere, Donostian dauka besteak beste, perretxikoetan espezializatutako denda. Hori horrela, Lasak perretxikoei buruzko sekretupeko hainbat aholku eta pasadizo kontatu dizkio Kronikari.

9

AGENDA

GAUR : Emakume
10:00 : tailerra,
ganbaran.
GOIZUETA

GAUR : Espetxeetako
11:00 : errealitateaz
hitzaldia.
HERNANI

GAUR : 'Bertsoa sutan'
17:00 : emanaldia,
Chillida Lekun.
HERNANI

GAUR : Enpatia tailerra
17:00 : zaintzaileentzat,
Iturolan.
HERNANI



Kresalaren usainpean

'Kostaldeko soinuak'ek bi-daia proposatzen du euskal kostaldetik datorren ostira-lean, Biterin, eskainiko den kontzertuan.

HERNANI
MUSIKA

4-5

Binakako finala, bertan behera

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak onartu egin ditu ELA sindikatuak hartutako neurriak, eta oraingoz ez du finalik jokatu pilotari goizuetarrak.

URUMEA
PELOTA

14

TALLERES JUANTXO

Juan Ignacio Rodríguez

- ▼ Diagnosi unibertsala
- ▼ Neumatikoetan aukera zabala
- ▼ Aire egokituaren karga eta konponketa
- ▼ Suspentsioak, Balaztak
- ▼ Olio aldaketak. Mekanika orokorra

ESKAINITZA NEGU ETA UDAKO NEUMATIKOETAN

Astelehenetik ostiralera:
09:00 - 13:00 / 15:00 - 19:00
Larunbatetan: 10:00 - 13:00

Andre kalea, 60 (Atzietas) Hernani Telf: 943 25 66 08 tallerjuantxo@gmail.com

«Uste dugu zaintza lanen antolaketa feministago batek, sistema osoa irauliko lukeela»

Zaintza lanak demokratizatzeari begira, Beterri-Buruntzako Udalek eta Emaginek, bi jardunaldi antolatu dituzte Hernanin. Urriaren 23an izango da lehenengo saioa Milagrosan, eta 24an mahai inguru baten bueltan bilduko dira, goizeko 10:00etan hasita, Biterin.

HERNANI BERDINTASUNA

Zaintza lanen demokratizazioa ardatz hartuta, Beterri-Buruntzako zaintza erregimenaren diagnostikoa eta ekintzarako proposamena sortu du Emaginek, Beterri-Buruntzaldeko Udalekin batera. Egindako ikerketa lan honek, aipatu moduan, zaintza lanak demokratizatzearen prozesuan lagungarri izan nahi du, «eraldaketarako pizgarria izan nahi duen lana da; berregituratze baterako oinarritzeko tresna; eztabaida soziala sustatzeko erreminta» azaldu du Miren Aranguren Emagineko kideak.

Beterri-Buruntzaldeako eskualdean, hau da, Andoain, Hernani, Urnieta, Astigarraga, Lasarte Oria eta Usurbilen zaintza lanak nola antolatzen diren aztertuta, eta zaintza hori aldatzen hasteko, «ekintzarako tresna bat sortu dugu» dio Mirenek. Horrez gain, identifikatutako beharrei erantzun bateratu bat emateko ekintzarako proposamena ere garatu dute. Izan ere, lan honek, erantzuten dio neurri batean, Euskal Herriko Mugimendu Feministak eta zaintza-aren sektoreko langileek, azken hamarkadan, mahai gaineratu duten gatazkari: «emakumeon eskubideen defentsak, zaintzen krisia eta mendeetako injustizia azalarazi egin ditu. Herritarren zaintzarako beharren eta zaintzeko baliabideen artean desoreka handia dago, eta horren kaltea emakumeek ordaintzen dute. Egungo zaintzen antolaketak, beraz, ez ditu herritar guztiaren eskubideak errespetatzen, eta horri aterabidea eman nahi dio, burutu dugun plan honek».

Duela lau urte sortutako ideia 2016an, prozesu honen ideia planteatzen hasi ziren, 2017an hainbat formazio jaso zituzten, eta 2018 eta 2019 urteen bitartean garatu zuten ikerketa eta plana. Hasiere batean, helburu gisa zituen, bazterkeria arriskuan dauden pertsonen gizarteratze eta laneratzea, zein menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta eta ongizatea haunditzea. Eta helburu hauek betetzeko, hainbat egitura proposatu ziren, «eta tartean sektorerako foroak betetzeko proposamena egin zen. Foroak, tresna gisa irudikatu ziren bazterkeria egoeran dauden pertsonak eta garaiaren bueltan lan egiten duten eragileak subjektu bilakatzeko».

Emaginek, proiektuaren erantzukizuna hartu zuen baitan, izan ere, «formazio eta ikerketara dedikatzen garen elkarre bat gara, ikerketa eta formazio feministara hain zuzen. Beterri-Buruntzaldeko zaintza lanen demokratizazioa lantzeko aukera hori zegoela ikusi genuenean, proiektua hartu egin genuen, modu batera esanda». Hasiere batean, «foroa dinamizatze eta elikatze parte hartu genuen, eta ondoren, lehiaketa publikoa egin ostean, eskuratu genuen diagnosia eta ekintza plana egiteko aukera».

Hori horrela, eskualdean foro feminista deituriko egitura bat zuten, «eta bertan parte hartzen genuen Emagineko kideez gain, herri bakoitzeko berdintasun teknikariak, eta Amher Elkarteko ordezkari bat». Talde guzti hauetako ordezkari eta kideek, ikerketaren muinak eta nondik norakoak ezarri zituzten, «azkenean zaintza lanak erpin asko dituen lan bat da, ikuspegi askotatik begiratu daitekeena. Eta guk formazioa jaso genuen, beste ikerketa batzuen berri ere izan genuen, eta apurka-apurka Emagineko kideok foro hori dinamizatzen, bideratzen eta nolabait lurreratzeko jardun genuen. Azkenean erabaki zen zerri buruzko ikerketa nahi genuen egin Beterri-Buruntzaldean.



Jone Arrazola eta Miren Aranguren Emagineko kideak, zaintza lanak demokratizatzeari buruzko lana eskuetan dutela.

Bi foko nagusi ezarri ziren, lehenik zaintza langileak dira, «bai familia zaintzen dutenak, bai eta zaintza profesionalean jarduten dutenak, erresidentzietan, etxeetan, eguneko zentroetan, edo etxeko langile gisa. Eta bigaren fokoa, adindunen edo helduen zaintzara dedikatzen diren horiek, «azkenean iruditu zitzaigun, errealitate gordina dela, zailtasunez betetakoa, gatazka asko metatzen diren eremu bat dela eta urgentziaz atenditu beharrekoa gainera».

Urriaren 23 eta 24an jardunaldiak, Hernanin Datorren asteburuan, Emaginek bi jardunaldi eskainiko ditu Hernanin. Lehen ostiralean izango da, Milagrosan, aurkezpene moduko bat eginez. Eta larunbatean, mahai inguru bat antolatu dute, goizeko 10:00etan hasita, Biterin.

Mirenek dio, Emagineko asmoa zela, zaintza erregimenaren diagnostikoa eta ekintza proposamena egitea, baina horrez gain «nahi genuen herritarren gain nolabait eragin. Eta horretarako, pentsatu genuen garrantzitsua zela, alde batetik; ikerketa lan hau ezagutzera ematea, sozializatzea eskualdean. Beste aldeetik; guk ekintzarako proposamen batzuk egin ditugu, eta beste hainbat eremu eta elkarre batzuetan ere lanean ari dira gai honen inguruan. Ondorioz, uste genuen garrantzitsua izango zela beste esperientzi batzuetatik ere jakitea. Eta gero, jakin nahi genuen, edo aztertu nahi genuen, non egon zitezkeen herri konpromezuak, hau da, eraldaketarako proposamen batzuk herritarrekin kontrastatzeko». Hiru helburu horiek hartuta, bi jardunaldi egitea otu zitzaizen, eta aipatu moduan atzo izan zen lehen, eta gaur bigarrena.

Gaur egingo den mahai ingurura lau esperientzia ezberdin ekarriko dira, Beasaingo Herri-lab, Maitelan eskualdean sortutako kooperatiba integrerala, Trabajadoras no domesticadas, Bilboko etxeko langileen elkarre bat, eta Radars egitasmoa da, Bartzelonan garatzen ari diren bakardade egoeran dauden pertsonekin egiten dute lan. «Mahai inguru honetan, lau esperientzia hauek entzungo ditugu, eta azken zatian, eguerdi aldera, herri eztabaida bat egingo dugu, bertaratutako guztien artean. Nolabait, pentsatzeko edo planteatzeko zein zaintza eredu nahiko genukeen, amesteko edo utopia horretan kokatzeko, eta herrietan martxan jarri behar den ekintza dela iruditzen zai- gularako noski».

«Azkenean iruditzen zitzaigun, errealitate gordina dela, zailtasunez betetakoa eta urgentziaz atenditu beharreko eremu bat»

Kronika

Larramendi 11, Hernani
 ☎ 943 33 08 99
 688 660 714

Lege gordailua:
 SS-1469/2018
ISSN: 2659-5036

Eposta:
 kronika@kronika.eus,
 astigarraga@kronika.eus,
 urumea@kronika.eus eta
 publi@kronika.eus.
www.kronika.eus

Lan-taldea:
 A. Arbelaitz, O. Egaña, I.
 Goñi, L. Goñi, A. Isasa,
 B. Los Arcos, J. Osa,
 M. Ramirez de Alda, I.
 Santa Kruz eta J. Zubitur.

Argitaratzailea:



Larramendi 11, Hernani
 ☎ 943 33 27 99
Eposta: dobera@dobera.eus
www.dobera.eus

KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Kultura eta Hizkuntza
 Politika Sailak
 (Hizkuntza Politikarako
 Sailburuordetzak)
 diruz lagundua.



**EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
 POLITIKA SAILA

**DOBERA BAZKIDEAK
 KRONIKALARIAK**

TOKIKOM



Emakumeetan «segregatzen» dira zaintza jarduerak

Emaginek burututako azterketan, aipatzen da, zaintza lanak nagusiki emakumeek egiten dituztela, eta Mirenek gaineratu du «Euskal Herriko eredu hori errepikatu egiten dela, hau da, emakumea eta zaintza. Profesionalizaten direnengan ere, nagusiki emakumeek egiten ditugu lan hauek, adibidez, zaharren egoitzetan, eguneko zentroetan, etxeko zaintzan.. eta Emaginen konturatu gara, geroz eta arrazializatuagoa dagoen sektore bati buruz ari gara, eta batez ere etxeko langileen kasuan».

Beterri-Buruntzaldean egiten diren zaintza lanak, segretatuta daude, hau da, emakumeen esku gelditzen dira, eta «geroz eta gehiago gertatzen da, batez ere aipatu moduan, emakume arrazializatuaren esku. Hau da, emakume klase pobre edo ertainekoekin gertatzen da gehienbat».

Bi egoera larri identifikatu ditu Emaginek, lehena izan da, «oso populazio zaharra dagoela Hernanin» eta ondorioz, menpekotasunak gora egiten du. Eta aurrera begira, menpekotasun honek gora egingo duela aurreikusi dute. Astigarragan ez bezala, izan ere, Astigarraga herri gazteago bat da, Astigarragako herritar asko Donostiatik datoz, «bikote gazteak daude, haur txikiak dauzkaten familia gazteak...». Baina Emaginek antzeman du, Beterri-Buruntzaldea populazio heldua duen eskualdea dela, eta horrez gain «jende asko bizi da bakarrik, eta bakarrik bizi diren hauen artean emakumeak dira nagusi. Eta esternalizatzen direnean, askok eta askok, etxeko langileak kontratatzen dituzte, eta kontuan hartu behar da, hauen egoera da irregularra dela eta ez dira langile hauen eskubideak bermatzen» Mirenek jakinarazi du, aitortuak dituzten eskubideak gutxi direla, baina hauek ere askotan ez direla betetzen. Egoera horrekiko gainera, Erakunde publikoetatik ez dago «eskuhartze» zuzenik, eta Emaginek ondorioztatu du, «zaurgarritasuna eta bortizkeria egoera larrian aurkitzen direla asko eta asko».

Ekipamendu, zerbitzu publiko, pribatu edota komunitarioak

Erakunde publikoetatik, nagusiki etxeko zerbitzuak bideratzen dira, eta Mirenek dio, «kasu batzuetan eguneko zentroak». Beste hainbat herrietan, erresidentziak ere aurki daitezke, baina Emaginek egindako azterketaren arabera, «pribatizatzeko joera dute». Izan ere, Aldundiaren esku gelditzen ari dira, baina «guztien kudeaketa ez da publikoa, kontratazioz-



Jone eta Miren, Beterri-Buruntzaldeako zaintza erregimenaren diagnostikoa eta ekintza proposamena ikuskatzen.

«Alde handia ikusi dugu Hernaniko zaharren egoitzaren eta Andoaingoaren artean, bai lan baldintzei dagokionez, bai eta jendea zaintzeko gaitasunean»

koa baizik. Eta hori, guk pribatizaziorantzko joera bat ikusten dugu, ez publikorantzkoa».

Beterri-Buruntzako herrien artean ere hainbat desberdintasun daude, eta Emaginek, zaharren egoitzetan hainbat identifikatu ditu, Andoainen eta Hernanin hain zuzen. «Alde handia ikusi dugu, Hernaniko zaharren egoitzaren eta Andoaingoaren artean, bai lan baldintzei dagokionez, bai eta jendea zaintzeko gaitasunean... Horrez gain, ikusi dugu, bai

egoiliarren zein langileen kalteetan izan direla Gipuzkoako Foru Aldundiak hartutako norabidea. Hau da, enpresa pribatuak kontratatzea hauen kudeaketa eramateko. Eta oso agerikoa izan da, azken hilabeteetan izandako kexa, greba eta mobilizazioak».

Emaginek egindako azterketaren arabera, erakunde publikoetan zerbitzuak eskaintzen dira, baina horien kudeaketa enpresa pribatuak daude, eta Mirenek azaldu du, «hau, langile zein egoiliarren kaletarako» dela. Etxeko langileetan ere, erantzukizuna dute erakunde publikoek, eta Emaginek dio, «mekanismo gehiago jarri daitezkeela martxan, horiek kontrolatzeko. Eta noski, etxeko langileen lan baldintzen hobekuntzarako bideak ere aztertu ditugu».

Zaintza lanak demokratizatzeko oinarriak

«Demokratizaziorantz esaten dugunean, ulertzen dugu prozesu baten izaera izan behar duela, eta demokratizazio kasu honetan, uste dugu zaintza lanen antolaketa feministago batetik, edo beste konzeptzio batek,

sistema osoa irauliko lukeela. Gure gizartea antolatzeke dugun modu hori errotik aldatu behar genuke. Eta guk ikusi genuen, momentu honetan, beharizan urgente batzuk badauzkagula, eta horregatik, norabide bat markatu dugu, hau da, demokratizazio hau trantsitatzeko bide bat eraikitzen ari gara».

Horretarako, Emaginek, hiru gako garrantzitsu bereiztu ditu, batetik, zaintza lanak sozialki eta politikoki aitortzea, hau da, «lanen izaera, dimentsioa, tokian toki betetzen dituzten funtzioak ikustaraztea, guzti hauek ekonomian egiten duten ekarpena kontutan hartuz. Eta honetarako, ekintza batzuk proposatu genituen, batzuk eremu sinbolikoarekin lotura dutenak». Bigarrena; zaintza lanak modu justu batean banatzea, «familia eredu batean bizi gara, eta kasu askotan emakumeak dira zaintzaile nagusiak. Iruditzen zaigu, eredu komunitario bateko joera hartu behar dugula, eta gizonezkoen papera ere funtsezkoa dela. Azkenean, hauek ez dute gaur egun zaintza lanetan jarduten emakumeek haina, eta

ez dituzte ardura sozial asko bereganatzen». Eta hirugarrenik; zaintzaileen bizi eta lan baldintzak duintzen, «iruditzen zaigu, gatazkaz beteriko enplegu bat dela, eta horretarako zaintzaileen arteko elkarguneak sortu behar direla hausnartu dugu, formazioa sustatu behar dela, lan baldintzak hobetu behar direla... Azkenean Covid-19aren eraginez, konturatu gara zein lan diren beharrezkoak eta ezin bestekoak, zaintzarik gabe bizi ez baitu aurrera egiten, eta gaur egun, lan prekarizatuena dira zaintzazkoak». K

IRUBIDE JATETXEA

Zure jatetxea, Epelen



Epele auzoa, 7
943 552 480 - 667 208 702

«Jendeari gustatuko zaion, sorpresaz beteriko, bidai bat prestatu dugu euskal kostaldetik»

Kostaldeko soinuak diskoaren emanaldia eskainiko dute ostiralean, hilak 23, 19:30etatik aurrera, Biterin; Juan Mari Beltran, Errege Belda, Ander Barrenetxea eta Aitor Gabilondok.

HERNANI MUSIKA

Kostaldeko Soinuak diskoaren doinuak Biterin entzungo dira datorren urriaren 23an, ostiralean, 19:30etatik aurrera. San Joan Konpartsak antolatuta. Juan Mari Beltran musikari eta ikertzaileak, Ander Barrenetxea eta Errege Belda musikari hernaniarrek eta Aitor Gabilondo musikari eta aktore errenteriarrek, diskoaren 16 abestietan zehar, bidai bat proposatuko diete hernaniarrei Euskal Herriko kostaldean barrena Lapurditik, Bizkaira Gipuzkoatik pasata.

Proiektuak Hernanirekin lotura handia du; Juan Mari Beltran urte askotan Hernaniko Musika Eskolan irakasle arituz, eta Ander Barrenetxea eta Errege Belda musikari hernaniarrek dira. «Hirurok urtetan Hernani Musika Eskolakoak» gogoratzen du Juan Marik.

Orain Hernanin emango dute kontzertua eta herriarekin duten lotura hori nolakoa den azaltzen du Juan Mari Beltranek. «Ander ikasle izandakoa eta ondoren irakasle ere bai beste leketan. Dultzainero ona, txalapartari aparta eta perkusionista kategorikoa da. Errege nirekin hasi zen dultzaina ikasten, gero akordeoiarekin hasi zen eta hortik Donostiara joan zen. Hernani eta bere Musika Eskola izan da eduki dugun lotura».

«Orioko emanaldia ederra izan zen eta plaza bete zen»

Pandemiak, diskoa jendearen aurrean aurkezten ari zirenean erdi-erdian harrapatu zituen. «Genituen konpromezuak bertan-behera geratu ziren. Orain espero dugu mugitzen hasia dagoen kontzertuen dinamika honek jarraitzea. Abuztuan Orioko plazan kontzertu hau jo genuen. Oso polita izan zen eta bete-betea zegoen. Egun argiz hasi ginen eta ilunduta amaitu. Jendeak gogoia dauka kontzertuetara joateko. Orion larunbatero antolatu dituzte». Bueltako lehenengoa izan zen, baina ez azkena, Hernaniko adibideak erakusten duen moduan.

Diskoa aurkezten den kontzertuan, bidai bat proposatzen

zaio entzule eta ikusleari. «Hernanik badu itsasoarekin lotura, Portu eta Karabel auzoetan, nahiz eta diskoan bildu dituzten 16 abestietan bertakorik ez jaso. Gertutik pasako gara».

Herri-musikan oinarrituta, baina bertsio propio eta berriak eginez, kostaldetik kantuen barrera paseo bat egitea proposatu dute. Herri-musika, edo, besterik gabe, musika egin dute, beste behin, berezko nortasuna duena.

Doinu asko dantzak dira eta Dantzari Egunarekin lotura du Biteri ez da beteko protokoloa dela medio, baina %60ko edukiera dago baimenduta. Jendea animatzea espero dute, Hernanirekin hain lotura estua izanda. «Doinu asko dantzak dira eta Dantzari Festa edo Egunarekin lotura du. Egokia da honelako emanaldia».

Juan Mari Beltranek uste du jendeari gustatuko zaiola. «Denetarik dago. Badaude momentu intimo xamarrak eta espero dugu jendeak ongi pasako duela, baina seguru seguru guk laurok ongi pasako dugula. Gozatuko dugu. Oso emanaldi ederra da, irekia, eta diskotik asko aldatu dena entseguz entsegu. Aurreneko emanalditik gaur arte aldatu da. Espero dugu jendeak beste bat eskatzea eta badauzkagu sorpresa batzuk prestatuta».

Biterin *Kostaldeko Soinuak* disko osoa entzungo da. «Hamasei abestiak. Disko osoa da aipatu den paseo edo bidai hori da. «Lapurdikoa buelta oso polita da. Badaude kantuak ezezagun xamarrak direnak, *Pasaiako Batelarien zortzikoa* esaterako. Sorozabalek moldaketa bat egin zuen, Gipuzkoako dantza errepertorioan jada agertzen da, baina Sorozabalek moldatu eta zati bat gehitu zuen. Oso polita da. Hortik abiatzen gara. Oiarztunen biltzen gara eta Pasaiaren itsasoratzen da Oiarztun ibaian. Gero Lapurdiko buelta egiten dugu, *Ene muthilik ttipiena* kantu tragiko xamarrarekin hasten gara Lapurdiko buelta hori. Ondoren dator *Brodazalearena*, oso ezaguna da, baina berri-berria. Bertsio polita dauka Amaia Zu-



Juan Mari Beltran Oiarztungo Soinuenean.

«Oso emanaldi ederra da eta diskotik asko aldatu dena entseguz entsegu. Espero dugu jendeak beste bat eskatzea eta sorpresa batzuk dauzkagu prestatuta. Argi dago gu laurok asko gozatuko dugula»

biria, gozoa, gurea gogorragoa da. Nik uste dut hori adierazi nahi izan dugula, zaharra ez dela. Zuberotar bati jasotako Lapurdiko kantu bat da. Baionan egin zuen soldaduska eta bere estiloan moldatu zuen».

«Abesti ezagunen egokitutako bertsio desberdinak jaso ditugu»

Hain da berria, diskoaren aurkezpen kontzertu haietatik Albalan edo Victoria Eugeniean pasa den urteko amaieran eman zituztenak, eta ostiralean Biterin eskainiko dutenak ez di-

'Pasaiako Batelarien zortzikoa'rekin hasten gara Oiarztunekin duen lotura kontutan hartuta. Gu bertan biltzen gara. Gero Lapurdiko buelta hasten dugu eta hortik Gipuzkoara eta gero Bizkaiara»

rela berdinak. «Asko aldatu da disko bera eta kontzertua»

Eta gainera, garbi adierazten du zein librea izan den, bertsioak egiteak. «Gure *Boga-boga* beste *Boga-boga* bat da. Baina seguru asko, guk egin duguna ez da kantzioneratik jaso duguna. Guk egin dugu, hemen. Pista hori genuen, partituran. Baina gero, hasi entseatzeko, eta sartu akordeak eta armoniak, eta egiten goaz. Azkuek jaso zuen eta pentagraman jarri zuen, baina guk gurea egin dugu. Azkuek adierazten digu garbi kantu hori egiteko modu asko zeudela.

«Brodazalearen gure bertsioa Amaia Zubiriaren bertsio gozoarena baino gogorragoa da. Lapurdiko kantua da, Zuberotar bati hartua, Baionan soldaduska egin zuenean jaso bere estiloan»

Guk Imanol Goikoetxeari jaso genion Pasaiako herritik kantuen bertsioa; garbi adierazten digu musika beste bat dela, eta nola hitzak ere, derrepente, Xenpelarrenak, moldatu egiten dituen, libre. Orduan, berria da beti. Momentu batzuetan iruditzen zait kantu batzuk, brodzalearena ere, kantu apartak direla. Ezin dela kantu hori interpretatu sormenik gabe. Partituran oinarrituta, zero».

Kantu tragikoak, baina alaiak ere badaude diskoan. Horren adibidetako bat da *Kaskarote dantza*. «Kaskaroteak



Beltran eta Ander Barrenetxea Albaolako kontzertuan.



Kostaldeko Soinuak-en entsegua Oiartzungo Soinuenean.

ez dira ez ijitoak, ezta agoteak ere. Beste arraza berezia da eta Lapurdin beti izan dira lotuak arrantzarekin eta arrain salmentarekin. Bertsio asko daude eta gurea horietako bat da».

Lapurditik jarraitzen du bidaia *Ontzi bat egin da eta Jeiki, jeiki etchenkuak* kantuekin. «Ereserki zoragarria da» azken hau». Eta Iparraldetik Gipuzkoara egiten du salto emanaldiak *Mila zortzireun da cincuenta y cuatro*-rekin.

Hondarribiako balezaleekin hasten dute Gipuzkoako bidaia «Bagenituen hiru bat kantu balezaleekin. Bat behar genuen eta hau aukeratu dugu. Musika ederra da, Hondarribian jasoa. Bale bat nola harrapatzen den azaltzen digu».

*Pasaia*ko herritik aski eza-guna dena ere agertzen da ondoren. Hori bai Kostaldeko soinuak diskoan beste bertsio bat da. «Guk jaso genion Pasaia gizon bati eta oso polita da. Paseoa osatzeko hor ibili gara, kantutegiekin bereziki: bi nagusi badaude (R.M. Azkueren Cancionero Popular Vasco eta Aita Donostiaren Cancionero Vasco). Eta gero, badaude berriagoak: Gure Herria aldizkarian argitaratutako Salaberrirenak eta Hauspoa bilduma. Hor balezaleen istorioak-eta, ateratzen dira. Kantu batzuk osatuak daude bertsio desberdinekin: Hauspoa, Aita Donostia eta Azkue kontuan hartuta. Bestalde, 80eko hamarkadan tokatu zitzaidan Gipuzkoako kostaldean herriz herri ibiltzea, informazioa biltzen. Ospetsua izan zen

«Kaskarroteak Lapurdin arrantzarekin eta arrain salmentarekin lotuta egon dira»

ttinttantantinttikittin hura, Orion. Eta gero, Oiartzungo proiektu honetan hasi ginen 1985ean, eta handik gutxira hasi ginen landa-lana esaten zionarekin. Oraindik jarraitzen dugu. Doinutegia esaten diogu proiektuari, eta hor asko jaso dugu. Diskoan, adibidez, ematen dugun Pasaia-koaren bertsioa, hortik hartua dago. Gero saiatu gara dena ez zedin izan amodiozko kantuak edo tragediak edo dantzak».

Kristobal Colonen historia abesti batean eskainiko dute Aita Donostiak jasoa 1944an

Ale arraunen Zumaiako abestia da. «Asko gustatzen zait. Arraunlarien kantu bat da». Baxenafarroan Aita Donostiak *Kristobal Colon* jaso zuen eta hori ere sartu dute, baina kostaldeko kantua da. «Guztira 21 bertso dira eta 21 horietatik gu seirekin geratu gara. Ikaragarria da, 19garren mendekoak gutxienez. Aita Donostiak jasotzen du 1944an gizon bati entzunda ta, hark aitonengandik jaso eta gero. Kristobal Colonen historia jasotzen da eta kuriozkoa da. Colonek kontratatzen zuen jendea balekoa zen edo ez jakin nahi zuen eta euskaldun batekin izan zuen hitzaldia jasotzen da. *'Jauna zuk ez dakizu zein arrazetarik naizen, euskalduna bati duzionian bihotz onean galdatzen, odol hontako gizonik ez da langerretan ikaratzen? usatia naiz ipar gainian, balen arrantzan ibiltzen, lotsarik gabe arituko naiz zure ontzia gidatzen'*. Momentu batian gu izanak gara han esaten dio».

«'Partida tristea Ternuara' eta gero 'Mariñelen polka' sartu dugu, dantzatzeko alai»

Santulari zetan doa Portugaletera kantuarekin egiten da alto Bizkaia. «Azkuek bere ama zenari idatzitakoa da. Ama Mundakakoa zen eta bertakoa da abestia». *Barkora mariñelak* Lekeitikoa da eta 18garren mendekoa da ondorengo *Partida tristea Ternuara*. «Hiru atal dira eta guk lehenengoa hartu dugu, 20 bertsoetik bederatzia. Gogorra da. garai hartan abiatzen zirenak ez zekiten itzuliko ziren edo ez».

Eta *Partida Triste Ternuara* kantuaren segidan sartu dute *Mariñelen polka*, dantzatzeko, alai-alai. Hitzarekin badatoz, normalean tragediak datoz, eta gero, poza sartzeko, instrumentala behar da, dantza behar da. Alai da baita ere txalapartarekin ematen dugun Santulari. Tristeak, alaiak, pikanteak! Eta lasaiak. Denetatik dago».

«Ezagunak diren kantu batzuk abesteko gogoia ematen dio jendeari»

Jende askori ezagunak egiten zaizkio zenbait abesti, kantatu ere egiten dituzte, gogoia ematen die beraiei ere kantatzeko eta hori oso garrantzitsua da. Betidanik entzun dituzten kantu asko daude disko honetan. «Azken biak horren adibide; *Itsasoa laino dago* eta *Lekeitioko Kaixarranka*. Paseo honen bi muturrak dira, Lapurdikoa azkenaurrena eta Lekeitikoa azkena».

Zein instrumentarekin zer jo erabakitzean ere, bertsioak egin dituzte eta ikonografian oinarritu izana aipatzen du Juan Mari Beltranek. «Ikonografia ez da hartu behar dokumentu zehatza eta erabatekoa bezala,

«Jendeari gustatzea nahi dugu, baina hori ez da helburua; baizik eta guri gustatzen zaiguna egitea»

baina ikonografia euskal kostaldean eta Andaluziako kostaldean ez dira berdinak. Hau da, ikonografia neurri handi batean da garai bateko kronika jasotzen duena. Soinu-tresnak ez dira kasualitatez agertzen hor. Horiek agertzen dira eta ez beste batzuk. Dokumentu idatzietan ere garbi dago zarrabetea asko erabili izan dela 19garren mendera arte istorioak kontatzeko. Eta guk ere, istorio bat kontatu behar badugu, zarrabetea hartu dugu garai batean bezala, non eta kostaldean»

Kostaldean ari direnez, adibidez, *Kaskarrote dantza* xirularru txiki horrekin jo dute, «inguru horretan, asko erabili izan den tresna baita. Ez bakarrik ikonografian agertzen delako, baina ikonografiak adierazten digu 11garren mendetik gaur arte tresna hori hor dagoela. Eta *Lekeitioko Kaixarranka*; txistuaren erreperitorioa da eta guk txistuarekin diskoan sartu dugu, baina baita ere xirularruarekin, kostaldean asko agertzen den soinu-tresna edo soinularia baita. Lekeition konkretuki xirularru-jolea daukagu kanpoaldean, elizan, eta baita erretauluan. Bietan. Inportantea izan da baita ere, 19garren mendetik behintzat, soka taldea, inguru horretan; Bizkaiko kostan, asko. Horregatik daude bandurria, lautea eta gitarra».

Victoria Eugeniako beheko aldea txiki geratu zen

Pandemia aurretik emandako kontzertuetan gustora aritu ziren eta ildo beretik jarraitzea nahi dute. «Diskoa grabatu eta gero izan zenez, gainera, ez zen berria guretzako, eta lasai aritu ginen». Victoria Eugeniako goialdea handia izango zela, baina behekoa txikia, azkenean. «Albaolako goxoa izan zen. Alkitran usain horrekin, eta zura... Lekuagatik, bere kar-

«Ikonografia da neurri handi batean, garai bateko kronika jasotzen duena».

«Colonen historiak 21 bertso ditu, baina guk sei jaso ditugu abestian. Oso kuriozkoa da eta bertan, Colon eta euskaldun baten arteko hitzaldia jasotzen da. Gu izanak gara esaten dio momentu batean».

ga zeukan. Baina hau izan da aurreneko proba publiko aurrean, ikusteko ea jendeak hartzen duen guk hartzen dugun bezala. Badakigu entsegua joaten zaigula konturatu gabe, gustoz aritzen gara. Gero, hori lehenengo aldiz publiko aurrean hor jarri da, eta hori genuen kezka: ea ordu eta erdian jendeak nola hartzen duen. Eta badirudi jendeari motza egin zitzaiola eta hori da inportantea».

Nahi dute jendeari gustatzea, baina hori ez da helburua. «Helburua da guri gustatzen zaiguna egitea eta lasai eta pozik ateratzea eszenatokira. Gero jendeari gustatzen bazaio, askoz ere hobeto. Beraz, ez goaz publikoaren autopista berdinetik. Gurea nazionala da. Hortik gure borroka. Landa-bidetik zeharka. Begira zer lortu dugun; Victoria Eugeniara eramandako disko guztiak bukatu zirela. Handik bi egunetara, hemen, kontzertuan egondako batzuk museoa ikusi nahi zutela. Eta sentitzea han zeuden denak gurekin zeudela.

κ

Asteburuko ekintza guztiak atzeratu dira, positiboek gora egin dutelako

Semaforo gorria piztu da Astigarragan, azken bi asteotan 40 positibo izan direla eta. Prebentzio neurriak zorrotz betetzea eskatu du Udalak.

ASTIGARRAGA COVID-19

Nabarmen egin dute gora azken egunotan, COVID-19 kasu positiboek, Astigarragan. Hori horrela, semaforo gorria piztu da, Udalak atzo jakinarazi zuenez; eta horregatik, erabaki du atzeratzea astebururako aurreikusita zeuden ekintza guztiak: haurrentzako zinea, artisau azoka, eta baita adinekoen Ttipi-ttapa ibilaldiak eta gimnasia saioak ere, datorren asteak. Gainera, azaldu du egoeraren bilakaera aztertuko dutela, bestelako neurriak hartu behar dituzten erabakitzeke, datozen egunetan.

Irailean 30 izan baziren kasu

positiboak guztira, urriko bi aste hauetan 40 kasu berri izan dira, eta azkeneko 14 egun horietan, 100.000 biztanleko 631koa da positibo tasa Astigarragan (500etik gora da semaforo gorria). «Egoera, beraz, kezkatzekoa da. Astigarragako Osasun Zentroak jakinarazi digu, kasu horien jatorria ezagutzen dutela, ez dagoela brote bakar haundirik, baina kasu isolatuen kopurua kezagarria dela», azaldu du Udalak.

«Prebentzio neurriak zorrotz» betetzeko eskaera, herritarrei Horren aurrean, Udalak herritarrei eskatu die, «prebentzio neurriak zorrotz» bete ditzatela:

eskuak garbitu, tartea zaindu, eta musukoa erabili. Eta horrekin batera, «ahalegin berezia» egin dezatela datozen egunetan, harreman sozialak gutxitzeko, familian edota lagunartean; eta pilaketak saihesteko.

Astigarrarrei ez ezik, herriko ostalaritza establezimenduei ere luzatu die eskaera, dagozkien prebentzio neurriak zorrotz bete eta zaintzeko: «bezeroak eserita egotea, musukoa soilik kendu dezatela edan edo jateko, tartea errespetatzea...».

Osakidetzak atzo emandako datuetan izan zen gorakada bereziki, Urumea bailarako herrietan. Astigarragan, 10 positibo berri eman zituen aditza, eta Hernanin, 19 izan ziren kasu berriak, atzoko datuetan. Semaforoak kolore laranjaekin jarraitzen du Hernanin. **K**

Gripearen txertoa, asteazkenean Ereñotzun

Auzo Udaleko areto nagusian egingo dute txertaketa, goizeko 10:00etan; baina alde aurretik eman beharko da izena, derrigor.

EREÑOTZU GRIPEA

Gripearen aurkako txertaketa kanpaina hasi den honetan, hitzordua jarri dute Ereñotzun, auzotarrei txertoa jartzeko. Datorren asteazkenean izango da hori, Auzo Udaleko areto nagusian, goizeko 10:00etan hasita.

Txertoa jasotzeko, hori bai,

aldez aurretik eman beharko dute izena ereñotzuarrek, derrigor. Horretarako, Auzo Udalera gerturatu behar da, edo telefonoz deitu, 943 55 10 00 zenbakira, astelehenean edo asteartean.

COVID-19aren pandemia dela eta, aurten garrantzia berezia eman diote gripearen aurkako txertaketa kanpainari, eta arrisku taldeetara bideratu dute kanpainaren aurreneko zatia: 65 urtetik gorakoak, haurdun daudenak, eta gaixotasun kronikoak dituztenak.

Urriaren 31tik aurrera, gainerakoei zabalduko diete txertoa jartzeko aukera. **K**

Urtebete atzeratu dute Korrikaren 22garren edizioa, pandemiagatik

2022an egingo dute, datorren urterako aurreikusita zegoena, atzo jakinarazi zuten.

URUMEA AEK

Korrikarik ez da izango datorren urtean, hala aurreikusita zegoen arren: urtebete atzeratu du Korrikaren 22garren edizioa AEKk, COVID-19aren pandemiaren eraginez; eta 2022an izango da. Hala jakinarazi zuten atzo.

Bi urtetik behin egiten da Korrika, Euskal Herri osoan barrena; eta 2019an Garesetik Gasteizerako bidea osatu ondoren, datorren urtean behar zuen hurrengo edizioak. Oraingoan, ordea, hiru urtekoa izango da itxaronaldia. «Erabaki gogorra» izan da, Asier Arrondo



2019ko Korrika, Astigarragatik pasatzen. Argazkia: Eli Gorostegi

Korrikaren arduradunak azaldu zuenez, «euskeraren aldeko bultzadari kalte egingo diolako atzeratzeak». Baina birusaren hedapena «ahalik eta gehien murrizteko» hartu dute erabakia, «Korrika behar bezala egi-

teko beharrezkoak baitira kalea, bizia eta mugimendua».

Edonola ere, Korrika atzeratu den honetan, herritar guztiei luzatu diete deia, Euskaraldian parte hartu eta euskerari bultzada hori emateko. **K**

Espetxeetako errealitateaz gaur, Biterin

HERNANI ERNAI

Hernaniko Ernaik antolatuta, hitzaldia eskainiko dute gaur goizean, espetxeetako errealitatea ezagutzera emateko. Biterin izango da, 11:00etan hasita; eta herritar guztiei luzatu diete gonbitea.

Emakume tailerrak, aurreneko saioa gaur

GOIZUETA BERDINTASUNA

Emakume tailerra antolatu dute Goizuetan, bi saiotan; eta gaur bertan egingo dute aurrenekoa, 10:00etatik 14:00etara, udaletxeko ganbaran. Bigarrena, urriaren 31n izanen da, ordu eta toki berean. Izena eman behar zen alde aurretik, parte hartzeko: goizutakomakumeak@gmail.com emailean, edo 674 086 926 telefonoan.

'Bertsoa Sutan' gaur, Chillida Lekun


HERNANI BERTSOLARITZA

Bertso saio berezia antolatu dute gaur Chillida Lekun, museoak eta Bertsozale elkarteak elkarlanean. Bertsoa Sutan emanaldia eskainiko dute, bertsolaritza eta sukaldaritza uztartuz, Andoni Egaña eta Oihana Iguaran bertsolariekin, eta Aitor Zugasti eta Maialen Cano sukaldariekin. Arratsaldeko 17:00etan izango da, eta sarrerekin, museoa bisitatu ahal izango da aurretik, eta mokadurik ere izango dute, saioaren hasieran dastatzeko, sukaldariak gidatuta. Sarrerak salgai daude interneten, 15 euroan: museochillidaleku.com.

Diana berezia Hernaniko Txistulari Bandak, bihar Ereñotzun

EREÑOTZU MUSIKA

Diana berezia eskainiko du bihar goizean, Hernaniko Txistulari Bandak. Ereñotzura joango dira, eta goizeko 11:00etan hasita, auzoan barrena ibiliko dira, txistu doinuak zabaltzen.





**FUNERARIA
ORBEGOZO
BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20 www.funerariaorbegozo.com

- * Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
- * Beilatokiak
- * Errausketak
- * Lekualdatzeak
- * Eskelak, koroak...

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA



Uxue Bereziartua, Aitor Altuna, Koro Etxeberria, Uxue Amonarriz eta Nagore Legarreta, atzo, Biteriko kanpoaldean.

Zehar Kablea taldeak eta Nagore Legarretak, arte sorkuntzarako beka

'Belarribero, bai esan?' webseriea garatuko du Zehar Kableak, eta 'Ibaia ez da toki bat' argazkilaritza proiektua Nagore Legarretak.

HERNANI KULTURA

Atzo aurkeztu zituen Hernaniko Udalak, 2019ko arte sorkuntzarako bekaren irabazleak. Eta bi dira beka jasoko duten proiektuak, aurtengoan: Zehar Kablea sormen taldearena, eta Nagore Legarreta argazkilariak aurkeztutakoa. Zehazki, webseriea garatuko du Zehar Kableak, *Belarribero, bai esan?* izenekoa; eta *Ibaia ez da toki bat* argazkilaritza proiektua gauzatuko du Nagore Legarretak.

Sexualitatea «umoretik eta euskeraz lantzeko aitzakia», Zehar Kablearen webseriea
Uxue Amonarriz, Aitor Altuna eta Uxue Bereziartua dira Zehar Kablea taldea osatzen dutenak. Lehenago ere, bestelako proiektuak egin dituzte, sormen diziplina ezberdinetan; baina aurrenekoa dute webserieen arloan. «Sei kapitulu izango dira, 10-15 minutukoak; eta kontatuko ditu enpresa berezi eta xelebre batean lan egiten duten lau emakumeren bizipenak. Langileak dira hiru, eta nagusia bestea; laurak, adin tarte ezberdinetakoak. Eta hori izango da aitzakia, sexualitatea lantzeko umoretik eta euskeraz, gure ikuspegitik», azaldu zuten.

Behin behineko gidoia osatu dute dagoeneko, eta zuzenketan fasean dago orain. Datorren urteko martxoan edo apirilean hasi nahi dituzte grabaketak, eta iraila edo urria aldera estreinatzea da asmoa, ikasturte berria hastearrekin batera. Orain-

goz, lantaldea osatzen ari dira: «badago jendea gogoia daukana horrelako proiektuetan parte hartzeko, eta egin behar duguna da hori mugitu», diote.

Webseriea izanik, noski, internet bidez zabalduko dituzte kapituluak, estreinatzen dutenean; baina leku fisikoren batean ere emanaldiak antolatzen aukera ere badaukate buruan; Biteriko aretoan, esaterako.

Urumea ibaia erdigune eta herritarrek protagonista, Legarretaren proiektuan

Amonarriz, Altuna eta Bereziartua zoriondu nahi izan zituen Nagore Legarretak berak, atzoko aurkezpenean: «poza ematen du belaunaldi berriak ikustea, horrelako lanetan». Eta ondoren, bere proiektua aurkeztu zuen, argazkilari hernaniarrak. Aurretik egindako beste bi proiektuk jarri zuten oraingoaren hazia, «orduak konturatu ez banintzen ere». Horietako bat, Urumea ibaian egin zuen, Loiola eta Astigarraga artean: «garai hartan Ereñotzun bizi nintzen, eta beti izan dut konexio emozional oso berezia Urumea ibaiarekin». Horregatik hasi zen, ontziekin egindako kamarekin argazkiak egiten ibaian: «eta oso irudi bereziak lortu nituen».

Hortik bideratu du, orain arte sorkuntzarako beka jaso duen proiektua, eta bi zati izango ditu. Batetik, tailerra egingo du, herritarrekin: «ontziekin argazki kamarak egiteko tailerra izango da; eta hori, bere horretan, sekulako esperientzia da.

Etxean dauzkagun produktu ezberdinen latak erabiliko ditugu, eta argazkilaritza primitibora bueltatzea bezala izango da. Baina harrigarria da horrekin argazkiak ateratzeko esperientzia. Txuri-beltzeko argazkiak dira, esposizio luzeak, eta egungo kamaren oso ezberdinak. Argazkiekin magia egitea bezala da».

Horixe izango da bigarren zatia, Urumea ibaira joan eta argazkiak ateratzea: bakoitzak erretratatuko ditu, ibaian berarentzat bereziak diren tokiak. «Horrela, istorio txikiekin haundiago bat osatuko dugu».

Hernaniko «eremu ezberdinetan» egin nahi ditu tailerren saioak, eta horregatik, Ereñotzun izango da bat, eta Hernanin bertan bestea. «Abendua eta Aste Santua bitartean izango dira horiek», aurreratu du. Eta dagoeneko luzatu die deia herritar guztiei, saio horietan parte hartzeko: «adin guztietako jendeak hartu dezake parte, eta ez da ezer jakin behar argazkilaritzari buruz».

Eta proiektuaren bigarren zatia, Bira Produkzioarekin batera garatuko du: «ibaiak nola ikusten gaituen erakutsiko digute beraiek. Hori ere, pieza artistiko bat izatea eskatu diet. Eta ondoren, euskarri digitalean jarriko dugu dena ikusgai».

2020ko deialdia, laster

2019ko deialdira aurkeztu zirenei, eskerrak eman zizkien Koro Etxeberria zinegotziak; eta aurreratu zuen, 2020ko deialdia laster zabalduko dela. Hori, arte plastikoei eskainiko diete berriro. 2019koa izan zen aurrenekoa, gainerako diziplinei eskainitakoa; eta 2021an izango da bueltan, bi urtetik behin. **K**

EROTIKAN PLAX! HARREMANEN INSPEKZIO TEKNIKOA



Norberatasuna mehatxatua

Zu zeu izateko aukera

Azken boladan, behar bada, emozionalki gora behera handiak bizi izan dituzu, **tristura, haserrea, utzikeria, pena, indarra, ilusioa edota antsietatea edo mina edo guztien koktel bat.**

Harremanetan zein maila pertsonalean kontentzio eta ziurgabetasunak markatzen ari dira gure jendartearen bizitza-ibilbideak.

Noraino daukazu azken aldian zu zeu izateko aukera? Egin dezagun errepasoa ikus-teko zein puntutan zabilzan indartsu eta zein ahulgune dituzun identifikatzeko.

Zure senari jator entzuteko aukera, **zeure irizpideak jarraitzeko askatasuna** eta pertsona bezala garatzeko posibilitateak mugatuak izan

badituzu, agian oharkabean txikiago sentituz joan zara. **Duin sentitzen al zara alor guztietan?** Familia, ikastegia, etxea, lana, lagunak, aisia, janzkera, ohiturak, sexu jokatibideak eta adierazpenak...

Zure **bizitza erotikoan**, sexudun zaren zere gero dituzun bizipenetan eta zure sare afektiboan **duin sentitu nahiko duzu** eta zu zeu zintzotasunez aritu. Kontraesanak dituzula onartu beharko duzu horretarako, zaurgarria zarela ere bai. Eta noski, ondokoak maitatu eta haiengandik maitatua izatea ezinbestekoa duzula onartu. Gai al zara hau guztia **koherentziaz bizitzeko** oraintxe?

Lasai komunikatzen al dituzu zure desioak? Ondokoei beharrezkoak dituzun mugak jartzeko gai ikusten al duzu zeure burua? Nola zaintzen zara gorputza aske mugi dadin? Eta azken galdera bat, eta ez horregatik garrantzia gutxiagokoa: **aske sentitzen al zara etorkizuna amesteko?**

Astigarragan ere Plax! sexu aholkularitza zerbitzua

Plax! Astigarragako sexu eta bikote aholkularitza doakoa eta konfidentziala da. Zerbitzua aurrez aurre eskainiko da kultur etxe zaharrean. Telematikoki ere aukeratu. Hitzordua egiteko: **656 544 606** (deitu edo whatsapp bidali) edo www.astigarraga.eus/sexu.

**ASTIGARRAGA
TRATU ONEN
EROTISMOAREKIN!**


Astigarragako Udala

«DBHn dauden gazteekin ekintza ezberdinak egiten ditugu, formatzeko eta hezitzaile bidea hartzeko»

Kanikak urriaren 31rako «elkar ezagutzeko» ekintza antolatu du, eta datorren asteartean bilera informatiboa egingo dute arratsaldeko 17:00etan hasita, Biterin.

HERNANI KANIKA AISIALDI TALDEA

Motorrak berotuta dator aurten ere Kanika Aisialdi taldea, ikasurte berrirako ekintza, plan eta entretenimendua eskainiz herriko txiki eta gazteei, feminismoa, natura eta euskera ardatz hartuta.

Hori horrela, urriko azken larunbaterako, zita jarri du Kanikak, «elkar ezagutzeko tartea izango dugu bertan, gure arteko konfiantza hori sustatuz». Eta datozen hiru hilabeteetan horretan jardungo dute. «Urtarrietik Aste Santura bitartean ere, beste lanketa bat egitea da gure asmoa, eta gauzak aldatzen badira, Aste Santutarako irteera bat ere antolatu nahi dugu». Hala ere, guzti honen berri emateko, datorren asteartean bilera informatibo bat antolatu du Kanikak, arratsaldeko 17:00etan hasita, Biterin.

Kanika, hiru hezitzaile izatetik, hogeiz aterata

Duela bost urte sortu zen Hernaniko Kanika Aisialdi taldea. Hasiera batean gainera, hiru kide ziren, «hasi ginen pentsatzen eta ideiak botatzen, eta aurrerago zazpi pertsona elkartu eta hasi ginen aztertzen Hernanin zein behar zegoen, zer falta zen... Eta behin ikertuta, ikusi genuen aisialdi alternatibo bat behar zela, eta hau eraikitze aldera, lanean hasi ginen. Eta justu duela gutxi, bost urte bete dira. Eduki genuen hasieran eraketa prozesu bat, nondik joan nahi genuen, eta batez ere gure ildoak markatu genituen. Gainera, zehazki pasa den ostegunean, egin ziren lau urte, lehenengo ekintza egin genuenetik, hau da, herriari begira lehenengo ekitaldia egin genuenetik».

Pausu txikiak emanez egin du aurrera Kanikak, hasiera batean taldearen sorrerari eman zioten garrantzia, eta behin hau finkatuta, herriari begira ekintzak egiten hasi ziren, gaur



Kanikako hezitzaileak, gazte eta hurrekin, pasa den urtean, Beizamara egindako irteeran.

arte. «Hasieran hasi ginen festa batekin, Berriakekin kolaboratu genuen gabonetan tailer batzuk egiten, eta aurrerago, hasi ginen gure filosofiarekin bat egiten zuen talde horri itxura ematen, gure inguruko haur eta gazteen beharrei egokitutako talde egonkor bat sortuz. Maiztasun batekin ekintzak egiten hasteko helburua hartu genuen, esaterako, hilabeteetan bitan larunbategan ekintzak egiten, eskolako opor aldietan irteerak egiten, udalekuak udan...»

Sei urtetik gorako haur eta gazteek har dezakete parte Kanika Aisialdi taldean, «taldean izan ditugun helduenak 15 eta 16 urteko gazteak izan dira, Guk ez dugu adin tarterik moztu nahi, nolabait esanda. Ez dugu adin tarte maximorik jarri nahi. Gurekin haur eta gazte bezala ibili

«Kanika Aisialdi taldearen printzipioak hiru dira; feminismoa, ingurunea eta euskara. Beti hauek presente izaten saiatzen gara»

direnak gero hauek hezitzaile izatea nahi dugu. Orain DBH mailan daudenekin, ekintza desberdinak egiten ditugu, nolabait formatzeko, eta hezitzaile bidea hartzeko».

Pandemia garaia, hezitzaile taldea indartzeko

Pandemia Urumea bailarara heldu zenean, Kanikako Aisialdi taldeak, ekintzak eta ekitaldiak bertan behera uztea erabaki zuen, hala ere, «udan bai egin dugu topaketa txiki bat gazteekin, eta horrez gain, hezitzaileon artean fokatu gara gehiago pandemia garai honetan, gure arteko formakuntza indartzeko, taldea apur bat haunditzeko... Azkenean hurrekin ez genuen ikusten modu seguru batean egoteko modurik. Planteatu genuen aurrera egitea, baina dena ari zen geratzen bertan behera eta guk ere horixe egin genuen».

Datorren asteartean, bilera informatiboa 17:00etan

Bizi dugun egoerak behartuta, Kanikak, protokolo bat jarri du martxan, eta hainbat neurri ezarri ditu, haur eta gazteak aisialdi denbora modu seguru batean igarotzeko, «talde txikiak egingo ditugu gure artean, pilaketak eta masifikazioak ekiditeko». Eta hau guztia azaltzeko, datorren asteartean, bilera informatibo bat egingo dute Ka-

nika Aisialdi taldeko hezitzaileek, arratsaldeko 17:00etan hasita, Biterin. «Jendea informatu nahi dugu, zein den ezarriko dugun protokoloa, zeintzuk izango diren gure asmoak... Jende berria ere egongo da eta hauei azalpenak eman nahi dizkiegu. Egingo ditugun ekintzen berri ere emango dugu». Bileraz gain, bertan izena emateko aukera ere eskainiko dute. Bertaratzeko deia luzatu du Kanikak «nahi dugu konpromezurik gabe hurbiltzea jendea eta haien dudak galdetzea. Zalantzak izanez gero nola jokatu dugu, zein neurri hartuko ditugun... dena azaltzen saiatuko gara».

Aisialdi talde autogestionatua

Kanika, gazte eta hurrei bideratutako aisialdi taldeak, autogestioaren bidez egiten du

lan. Jakinarazi dute, hasiera batean Oronan festa bat egin zutela, eta hor dirua bildu zutela, horrez gain, «Berriakeko tailer eta saioetan parte hartzen genuen eta hor ere zerbait irabazi genuen bai». Hala ere, behin martxa hartuta, azaldu dute autogestio bidez funtzionatzen dutela. Irteeretan, haurren gurasoek kantitate bat ordaintzen dute, eta hortik «margen bat ateratzen dugu, eta urtean zehar margen honekin jokatzen dugu. Egia da, gu ere, beste erakunde edo arlo batzuetan ibiltzen garela lanean, eta materiala badaukagu, azkenean kontaktuak daukagu eta sare bat sortu dugu». Hernaniko Udaleku Irekiak ere kudeatzen jarduten du Kanikak, eta «hor ateratzen dugu ere beste diru apur bat, baina gutxi da».

Jokotik, Aisialdi taldera

Zehazki, duela 31 urte sortu zen Kanika Aisialdi taldearen izena, «garai hartan Kanika izeneko aisialdi talde bat zegoen, eta guk esku artean, antzeko proiektu bat geneukan, hau da, haur eta gazteentzako aisialdi talde bat sortzea. Orduan hainbat bilera egin ondoren, hauei galdetu genien ea Kanika izena erabili genezaken, eta baiezkoa jaso genuen, orduan hortik dator Kanika, duela 31 urte lehenagotik sortutako taldeetik». **K**

«Pandemia honetan, hezitzaileotan zentratu gara, hau da, formakuntzak egin ditugu, taldea gehiago indartu dugu... horretarako erabili dugu egoera hau»

«Perretxiko bilketan gerta daiteke norbaitekin topo egitea eta hor ez dago legerik, etikaz jokatu behar da»

Perretxiko eta onddoak biltzeko garaian sartuta gaude, eta Aitor Lasa hernaniarra jakitun da arlo honetan, izan ere, Donostian dauka besteak beste, perretxikoetan espezializatutako denda. Hori horrela, Lasak perretxikoei buruzko sekretupeko hainbat aholku eta pasadizo kontatu dizkio Kronikari.

HERNANI PERRETIXIKOAK

Nola identifikatu daitezke zein perretxiko diren? Jakintzagatik, ukituz, bistarekin...

Perretxikoen identifikazioa erraza da, azkenean guk basikoki, hiru lau mota erabiltzen ditugu. Onddoetan adibidez, badaukagu buztana gorria duena, *Satanas* deitzen zaio. Hau, berehala urdintzen da, enbor desberdina dauka gainera, eta bereizteko oso erraza da, oso nabarmena da. Gainera, perretxikoetan arrisku gutxien duena, onddoa da, eta gehiena saldu eta jaten dena.

Guk Xixa-horia ere badaukagu, baina hau oso gutxi dago, perretxiko mota honi ez baitzaio euria asko gustatzen. *Cantharellus lutences* ere erabiltzen dugu, Mendiko angula ere deituta. Hauek, Xixa-horien familikoak dira, eta hauek orain ateratzen dira, tronpeta baten forma daukate. Oso polita da perretxiko mota hau, laranja kolorekoak izaten dira, bixiak, eta meheak. Goroldioetan ateratzen dira, baita pinu tartetan ere, identifikatzeko errazak.

Arriskua beti hor dago, askotan ez dakizu perretxikoa ona den edo ez, nola ziurtatu dezakezu?

Aipatu ditudan hauek ez dira arriskutsuak. Arriskua dago Gibel urdinetan adibidez. Hau *Russula* motakoa da, eta badauka berezitasun bat; oso berezia du enborra. *Russulatan*, batzuk badaude hanka gorriak direnak, apur bat pikatu egiten dute, baina kalte haundirik ez dute egiten.

Orain mendian asko ateratzen dena, Urri-xixa da, eta hau oso arriskutsua da. Askok jaten dute, eta nik ere jan dut perretxiko mota hau, baina esan bezala arriskutsua izan daiteke. Lehen gehiago jaten zen, orain aldiz, Osasun sailak dio ez dela gomendagarria, ez da ziurra. Azkenean intoxikazioak sortu ditzake, eta hau da perretxiko bat hain zuzen, intoxikazio gehien sortu dituen edo sortu ditzakeena.

Hala ere, Urri-xixaren itxura duen beste perretxiko bat ere badago, ezberdintasun batzuekin. Azpian dituen esporak ezberdinak dira, perretxikoa txarra bada, espora hauek arrosa kolorekoak izango dira, aldiz perretxikoa ona bada, grisa kolorekoa izango da. Esfora hauek, txapeletik, hanka aldera doaz, eta amaitzen da beheeraka, kaltegarriak direnak berriz, goraka. Guk hau guztia begiratu egiten dugu, arriskua ekiditeko. Perretxiko Gorringoak ere, arriskua du, horregatik, egiten dugu Gorringo txikien gainean lauki bat edo gurutze bat, ikusteko azpia laranja kolorea agertzen den edo ez. Azkenean debekatuta daude tamaina muga baina beheerako perretxikoak saltzea, beraz kontu haundiz ibiltzen gara.

Nik ez ditut perretxikoak biltzen, nik perretxiko biltzaileei hartzen dizkiet, eta gero saldu. Gainera, nire dendan saltzeaz gain, jatetxeetara doaz nire produktuak, eta noski, nik ziurtasun bat eman behar dut. Hala ere, nik ardura dut, eta begiratu beharra daukat.

Zein da perretxiko demandatuena?

Dударik gabe, onddoa da gehien jaten, erosten, eta eskatzen dena. Esango nuke onddoa ia mundu osoan saltzen dela. Asko saltzen da, bai izoztua, bai lehortuta... modu guztietara.

Prezioei dagokionez, asko aldatzen da? Perretxikoaren araberakoa da?

Bai, asko bariatzen da. Azkenean faktore asko hartu behar dira kontutan. Perretxikoa nondik ekarri behar den... Urrutitik ekartzen bada, garraioa ordaindu behar da. Jatetxe askok demanda izaten dute perretxiko konkretu batena adibidez, eta hori Errumaniatik ekartzen badugu, noski garestiagoa izango da produktu hori, azkenean kilometro asko egiten dira, eta hori kobratu beharra dago. Hemen gertuko perretxiko bat bada produktua, merkeagoa izango da.



Aitor Lasa eta Maria Jesus Zabala, Donostian duten dendan.



Duela urte bete, Lasa Goizuetako mendi eta basoetatik aurkitutako onddoak eskuetan dituleaeskuetan dituela.

Zer esango zenuke, azken urteetako perretxiko kopurua zer egin da, haunditu, txikitu, hala berdin jarraitzen du?

Hori oso aldakorra da. Izan ere, badaude urte batzuk, perretxiko asko ateratzen direna, eta beste batzuetan berriz oso gutxi. Orain bertan, urriko hilabete honetan, asko ari dira ateratzen. Nik pertsonalki, aldaketa klimatikoak eragina duela uste dut, eta perretxikoetan nabaria da.

Sekretupean eramaten da gaia, baina zein ordutan hasten da normalean perretxioken bilketa? Asko goizean goiz joaten dira, bilketan lehenak izateko...

Nire ustez, ez dago ordu finkorik. Askotan gertatzen da, zu pasatzen zarela eremu batetik, eta hor perretxikorik ez dago. Han-

dik minutu edo ordu batzuetara, bapatean, perretxikoa atera da, beraz, ez dago momentu konkreturik. Bakoitzaren arabera, izaten da, badaude batzuk, gauetan, linternarekin joaten direnak, beste batzuk goizean goiz... Gehienek gainera, goizean bildu eta jarraian hamaketakoan jaten dituzte bildutako perretxikoak.

Polita izaten da, mendi buelta bat egin eta perretxikoak biltzea, beste batzuk, diruarengatik joaten dira, eta egun osoa igarotzen dute perretxikoak biltzen, ilundu arte.

Perretxiko biltzaile bakoitzak, eremu konkretuak dauzka... beste batekin elkartzen bada eremu berdinean, zer egiten da?

Bai azkenean jendeak baditu bere txokoak. Askok joan au-

rretik badakite nora abiatu. Azkenean dauzkate 6 eremu, eta momentu zehatz bakoitzean nora joan badakite. Hori guztia, urteen poderioz egindako joan etorriekin gertatzen da. Hasieran joaten zara toki batera eta ez dago perretxikorik, hurrengoan ere ez, hurrengoan ere agian ez daude, baina eremu asko kontrolatzen badira, eta apunteak hartzen bazoaz, perretxikoak ateratzen diren eremuak aurkituko dira, seguru.

Askotan gertatzen da, perretxikoak dauden eremu batera joan, eta norbaitekin topatzea. Hor, beharko lukeen legerik ez dago, baina etikaz jokatu behar dela iruditzen zait. Pasatzen da, bost ordu perretxiko bila ibili den pertsona batek ez duela ezer aurkitu. Hortik gutxira, norbait heldu eta honek aurkitzea. **K**



Gaur ekingo dio denboraldi bereziari, Hernaniko Ohorezko Erregional mailako taldeak, mutiletan.

Hernani eta Mundarroko futbol talde desberdinek asteburu honetan hasiko dute denboraldi ofiziala

Denboraldi berezi honetan Hernaniko Ohorezko mailakoek gaur, 16:30etan, Añorga hartuko dute Zubipen. Mundarro bihar Zestoan ariko da.

ASTIGARRAGA-HERNANI FUTBOLA

Futbola, kirol erregea, asteburu honetan jarriko da martxan Gipuzkoan eta Hernani eta Mundarroko talde desberdinak prest daude aurrendenboraldia osatu eta gero. Hernaniko Erregional Ohorezko mailako taldeak Añorgaren aurka jokatu du gaur, 16:30etan, Zubipen eta

Mundarrok bihar ekingo dio denboraldiari, Zestoako Iraetan, 16:30etan, Gorengo mailan. Hernaniko bigarren taldeak ere bihar jokatu du maila horretan, Tolosan, 11:00etan.

Euskal Ligako neskek beranduago hasiko dira, azaroaren hasieran, baina Erregionalak bihar, Touring izango dute aurrez aurre, 10:00etan, Zubipen.

Ohorezko Jubenil mailako taldeak asteburu honetan hasiko dira; Real Unionen kontra Irunen, gaur 16:00etan, astigarrak eta Zubipen, Beasainen aurka, hernaniarrak bihar 12:15etan.

Hernaniko ohorezko kade-teek, neska eta mutilak, Añorga izango dute aurkari. Neskek gaur, 10:30etan jokatu dute Rezolan eta mutilek leku berean, bihar, 12:00etan hasiko dute partidua. Mundarroko mutil jubenilek Beti Ona hartuko dute etxean, gaur, 10:00etan eta

neskak Cesar Beniton Intxaurdi, izango dute aurrez aurre 09:30etan..

Protokolo desberdinak lekuen arabera

Herri eta Udal bakoitzak protokolo desberdinak dituzte eta horrek zuzenean taldeei eragiten die. Hori horrela, Hernanin eta Astigarragan desberdinak dira protokoloak. Unai Munduate entrenatzaile hernaniarrak dio bereaiek orain ari direla finkatzen. «Hasiera batean ikusleen %30a sartu daiteke Zubipera. Horrek

suposatzen du etortzen den ia jende guztia sartu ahalko dela. Hori bai, beti ere neurri bereziak errespetatuz distantzia eta protokoloei dagokionez».

Mundaroren egoera desberdina da. Beñat Ifurritegi entrenatzaileak azaldu duenez Zarkumendegin aurrendenboraldian jenderik ez da egon. «Instalokuntza bakoitzak eta udalek beraien protokoloak dituzte. Oraingoz Liga ikuslerik gabe hasiko dugu, baina gustatuko litzaiguke zaletuek hurbiltzeko aukera izatea». **K**

«Lehendabiziko helburua aurreneko fasean 3 aurrenekotan geratzea da»

Pasa den urteko taldea mantentzen du eta gainera «hiru postu indartu nahi genituen eta lortu dugu» dio Unai Munduate entrenatzaileak.

HERNANI OHOREZKO ERREGIONALA

Hernaniko mutilen talde nagusiak gaur hasiko du denboraldia, 16:30etan Zubipen, Añorgaren aurka. Unai Munduatek jarraituko du entrenatzaile moduan eta urtea nola ikusten duen azaldu digu. «Aurten Liga desberdina da, bere alde onekin eta txarrekin. Bi multzo egin dira, hamar talderekin bakoitzean, eta helburua lehenengo hiruen artean geratzea da, iguera fasea jokatzeke». Sei talde horietatik lehenengoa igoko da Hirugarren mailara eta bigarren sailkatuak promozioa jokatu

beharko luke.

«Bi liga izango dira. Aurrenekoa 18 partidukoa eta gero hamar partidukoa. Bigarren fase hori talde denek zero punturekin hasiko dugu. Laugarren postutik atzera sailkatzen direnak jaitsiera postuak jokatu dituzte».

Taldea mantentzen du Hernanik eta pasa den urtean Liga geratu zenean Anaitasuna eta Eibarrengandik puntu bakkarrera zeuden. «Pena izan zen, gainera Zubipen irabazi egin genien eta zuzenean igotzeko aukerak genituen. Azkoitiko taldea igo zen. Hala ere, horrek ez du atzera bueltarik, aurre-

ra begiratu behar dugu». Eta aurrerako begirada horretan ilusio handia dute hernaniarrek. «Pasa den urteko ia jokalari denak mantentzen ditugu. Hiru postu indartu nahi genituen eta lortu dugu taldera ekartzea postu horietarako nahi genituenak. Konpetentzi handiagoa du postu bakoitzak eta horrek mesede egingo digu. Alde horretatik gustora gaude. Denak jarraitzen dute. Beheko taldetik ere igo ditugu mutilak».

Orain emaitzak ikusi beharko dira. «Taldea orekatua dugu eta orain egin behar dudakudeaketa izango da



Unai Munduate hernaniarra da Ohorezko mailako taldeko entrenatzailea.

«Txapelketak zure lekuan jartzen zaitu eta talde gehienak desberdinak izanda ezinezkoa da jakitea nola ibiliko garen»

Mundarroko talde nagusia Gorengo mailan ariko da Beñat Iñurrietaren agindupean, beste urte betez. «Berrogeialdia pasa behar izan dute eta horren ondorioz sei mutilek utzi egin dute, hala ere kopurua mantendu dugu taldean».

ASTIGARRAGA GORENGOA

Beñat Iñurritegik lau urte daromatza Mundarroko lehenengo taldeko entrenatzaile modura eta bihar denboraldi berri bat hasiko du Zestoan. Partidua Zestoan, Iraetan jokatu dute, Getariako Ketaren aurka, 16:30etatik aurrera. Iñurrietak dioen bezala «denboraldi desberdina».

Gorengo preferente maila hiru multzotan banatu da. Aurreko urteetan bi multzotan zeuden banatuta eta Mundarro bigarren multzoan zegoen. «Beste bi multzoak hamabi-koak dira eta gurea hamaika taldez dago osatuta. Lehendabiziko biak, sei guztira, bigarren fasera sailkatuko dira eta hor igoera jokatu da itzuli batera. Bi taldek lortuko dute mailaz

igotzea. Amaitzerik ez balego, hiru lehenengoak triangular batean erabakiko litzateke. Besteekin zer gertatuko den oraindik ez dago argi» dio Beñatek.

Liga hogeitazirekin hasiko da. «Entrenatzen hasi eta bigarren astean berrogeialdia pasa behar izan genuen, hori iralaren 14tik aurrera izan zen. Horren ondorioz sei jokalarik utzi dute taldea. Ikasten eta lanean ari dira eta ikusi dute ezin dutela arrisku hori artu. Sei baja horiek bigarren talde-
tik igotakoekin, bueltan itzuli diren birekin eta kanpotik etorritako batekin bete ditugu. Kopuru aldetik mantendu dugu jende nahikoa eta alde horretatik pozik gaude. Hori bai, entrenatzeko ez dugu denbora askorik izan. Jarraian entrenatzeko hilabete bat eskas izan



Mundarroko Gorengo mailako taldean oinarria mantentzen da.

dugu. Gainera kontuan hartu behar da aurretik sei hilabete egon ginela geldirik».

Egokitzea, beste erremedio-rik ez da geratzen Mundarron. Gainera pasa den urtetik ia talde gehienak aldatu dira eta multzoan hiru-lau talde dira berdinak. «Aurrendenboraldian jokatu ditugu partidu batzuk. Zelaiko sentsazioak berreskuratzea izan da helburua. Erdoilduta egoten da gorputza eta

berriz puntuan jartzeko erabili ditugu partidu horiek. Ez da gaizki joan. Txispa hartzen egon dira. Aurkituko duguna denboraldian zehar desberdina izango da zentzu guztietan. Urnieta, Hernani, Ostadar eta gu gara multzoan errepikatzen dugun bakarrak».

Helburuak finkatzea ezinezkoa dela dio Beñatek. «Txapelketak jartzen zaitu zure lekuan. Ez dakigu zer eragin

eduki duen geldialdiak taldeetan eta seguru positiboak egongo direla eta horrek ere eragin handia izan dezake. Denboraldi arraroa eta desberdina izango da. Urte zaila izango da futbolarentzat, ez-
hoikoa».

Mundarrok duen abantaila da egitura mantentzen dela azken urteetatik. «Jokalariak ezagutzen didate, nik beraiei ere bai aspalditik eta horrek konfidantza sortzen du».

«Gure bederatziko multzoa oso gogorra da, bost aurkari lehiakorrekin, baina helburua lau aurrenekotan geratzea da»

Lehendabiziko lauak igoera fasea jokatu dute eta denboraldia azaroaren 1ean hasiko dute Hernaniko neskak Athletic-en aurka Lezaman.

HERNANI EUSKAL LIGA

Euskal Ligako neskak gehiago itxaron beharko dute denboraldia hasteko. Azaroaren 1ean hasiko dute txapelketa eta entrenatzaile lanetan ariko da bigarren urtez jarraian Fernando Molina argentinarra. Ilusioz gainezka dago, nahiz eta hasiera benetan zaila izan. «Lezaman eta Athletic-en aurka egingo dugu debuta aurtengo Ligan. Pentsa nolako erronka dugun aurrean».

Pasa den denboraldia bertan behera geratu zen eta Real aigo zen mailaz. Aurten egitura aldatu da eta bederatziko bi multzotan banatu da Liga. Hernaniri multzo gogorra suertatu zaio zozketan. «Lehenengo lau sailkatuak igoera fasera sartuko dira eta hurrengo bost sailkatuak jeitsiera fasea jokatuko dute» dio Molinak.

Helburua argi du argentina-

rrak. «Lau aurreneko postuetan sailkatzea da. Multzo bakoitzetik lau taldek zortzikotea osatuko dugu». Entrenamenduak abuztuko lehenengo hamabostaldian hasi zituzten. «Gero atsedena hartu genuen eta berriz hasi genituen saioak irailean». Luze egiten da itxarrotea, baina aurrendenboraldian lagunarteko partiduak jokatu dituzte eta entrenatzailea pozik agertu da taldeak eman duen mailarekin. «Tolosa, Eibar, Osasuna... maila altuko taldeen aurka neurtu ditugu indarrak. Azken larunbatean Eibar eta Osasunaren aurka triangularra jokatu genuen Zubipen. Berdin-
du egin genuen Eibarren aurka eta irabazteko partiduan, sei aukera garbi edukita».

Pasa den urtetik jokalaria gehienak mantendu dituzte, nahiz eta bi neska Erasmusekin kanpoan egon. «Garrantzitsuak dira eta abenduan ea

bueltatzen diren, zain gaude. Bigarren taldetik jokalaria igo dira, Paula aurrelaria maila onean dabil; Añorgatik Sara etorri da; Intxaurditik Janet; eta berriz futboleant hasi den Irati Galdeano defentsa sasoian jartzen ari da».


Oinarri sendoak dituela aurreratzen du entrenatzaileak. «Atezainak, Maialenek maila oso altua du, Olaia, Leire... futbolari interesagarriak ditugu oinarri sendoa ematen digutenak eta ilusioa pizten dutenak».

Athletic-en partidua dute buruan. «Ilusio handia dugu eta helburuak goian jartzen ditugu. Epe ertainean igoera fasera sartzea. Bederatziko taldeetatik sei indartsuak dira, zozketan ez dugu zorterik izan, baina barrenean egon nahi dugu. Athletic, Eibar, Leioako Emakumeak, Goierri-Gorri, Elorrio... bost talde horiek in-



Fernando Molina da Euskal Ligako entrenatzailea.


Labirintoa



Ariketa matematikoa

9	+	□	-	□	=	7
+	-	□	+	□	=	3
□	-	□	x	□	=	9
/	+	□	-	□	=	4
□	-	□	+	□	=	4
=	=	=				
4		2		4		

Ezberdintasunak



Sudokuak

3			9	1		6	
	1					8	
	9			6			4
		3	7		1		9
			6	3		5	1
1	7	5	8				
			5	9			
	3	4		7			5
9					8	3	7

Mezu sekretua

ERLU RULME ZE KNAU HRIE REULDB, TAIBAD NTEAXE TORA TAE RGEU.

SOLUZIOA: Elur-melur ez nauk hire beldur, badiat etxean arto eta egur.

				M	L
		L	P		
P		M	L	N	
	L		K	P	M
		K	M	O	P
	M		N		

K L M N O P

Atsotitzak

BURURIK NEKATZEN EZ DUENAK,

ERREMENTARIAREN ETXEAN

KUPEL TXARRETIK

SOLUZIOA: (hankak nekatu behar) / (zotza nagusi) / (ardo onik ez)

ZIKULU-Saltsa

Gure sorginak ezin du asperduraren aurkako bere edabe magikoa prestatu, osagai garrantzitsuena desagertu zaiolako. Edabe magikoaren formula sekretua denez, ezin da esan zein den osagai hori, baina uste dugu gozo-gozoa dela. Nolanahi ere, nor demontre izan ote da lapurra? Hemen ageri diren adiskideen artetik zeinek ostu ote dio sorginari osagaia? Ea asmatzen duzun.



Zenbait pista:

- Begiak zabal-zabalik ditu.
- Belarriak ez ditu tente.
- Ez da iluna.
- Arrautzak erruten ditu.
- Zomorro txikiak jaten ditu.
- Bere espeziean bakarra da.
- Ez da narrastia.

Labirintoa

Lagundu erroiari bere zuhaitzeraino heltzen, sekuentziari jarraituz. Gogoratu laukian banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean. Pasa dituzun laukietako hizkiak batu eta esaera zahar bat osatuko duzu. Puntu grisak hitzen arteko tartekak dira.

sekuentzia

	F	E	G	I	N	P	E	H	E	D	G	L	I	
	O	S	E	N	S	Q	B	E	H	S	E	H	G	
T	B	O	S	E	Q	E	H	A	N	E	H	S	E	G
E	A	H	A	J	E	N	U	A	B	U	G	S	O	R
I	T	A	S	U	Z	A	E	Z	I	K	U	T		
B	E	H	U	S	A	B	U	E	T	I	G	S	Z	
I	O	A	N	A	B	L	O	R	E	N	D	N	E	
A	B	U	H	K	E	L	D	U	D	E	M	N		
B	E	C	U	A	H	L	O	E	T	G	I	D	B	
R	R	A	U	A	H	L	O	E	R	A	I	B	D	A
R	E	I	E	C	J	L	O	A	S	R	A			

Idatzi hemen esaldia.

EGILEA: Garbine Ubeda (Aurri)
TOKIKOMeko beste hedabideekin elkarlanean argitaratutako atala.

SOLUZIOAK: Saru www.plazanbazan.eus
web atarian eta denbora-pasa hauen soluzioekin batera beste hainbat jolas aurkituko dituzu.

Orak irakurtzeko aplikazio batekin itakurri



Aimar Olaizolak, bihar Bilbon, jokatu behar zuen Binakako finala bertan behera geratu da

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak onartu egin ditu ELA sindikatuak Binakako Txapelketako finalaren inguruan eskatutako kautelazko neurriak eta oraingoz ez du finalik jokatu pilotari goizuetarrak.

URUMEA PELOTA

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak onartu egin ditu ELA sindikatuak Binakako Txapelketako finalaren inguruan eskatutako kautelazko neurriak, Baiko enpresako pilotarien kolektiboko iturriek jakitera eman dutenez. Ondorioz, bertan behera geratu da Olaizola II-Urrutikoetxea eta Ezkurdia-Martijaren arteko bihar arratsaldeko txapelengatik Bilbon jokatu behar zen partida.

ELAK, Baiko-ko pilotarien taldearen ordezkari gisa, errekurtsioa aurkeztu zuen asteartean Esku Pilota Enpresen Ligako Lehiaketa Epaila Bakarraren (LEP.M) erabakiaren aurka. Erabaki horretan, Agirre eta Albusuri 22-0 galdu zuten, Ezkurdia eta Bikufñaren aurka jokatu behar zuten finalerdietako ligaxkako partidaren agertzeagatik. Sindikatuaren ustez, erabaki horrek finalera sartzeko asmoa zuten bi pilotariren «grebarako eskubidea urratzen du» eta, ondorioz, kautelazko neurriak onartu dira.

Honek zer suposatuko duen oraindik ikusteko dago. Gerta liteke aurrerago LEP.M-n erabakia onartzea, baina oraingoz ezin da finala jokatu sortuko lituzkeen kalteak konponezinak izango liratekeelako. Gerta liteke baita Agirre eta Albusuri arrazoiak eman eta hauek finalerdia jokatzeko eskubidea izatea Ezkurdia eta Martijaren aurka.

Dakiguna da Aimar Olaizola goizuetarrentzat 26garren finala izango dela, 41 urte beteaz dagoenean azaroan. Hori bai, finala atzeratuta geratzen da oraingoz. Bizkaia Arena frontoian, Bilbon, jokatzekoa zen finala eta Aimarrek 16garrena irabazteko aukera du. Orain arte 15 ditu poltsikoan -zortzi lau terdian, lau buruz buru eta hiru binaka-.

Hori gauzatzeko, azkena lortzen lagundu zion bikote berdina izango du, Urrutikoetxea zaratamoarra. Elkarrekin irabazi zuten binakakoa 2016an eta berriz irabazten badute balentria litzateke. Atzoko erabakiak dena airean uzten du eta orain zer erabaki hartuko diren ikusteko dago.



Urrutikoetxea, Olaizola II, Alustiza eta Ezkurdia material aukeraketan.

Zurrumbilola Baiko enpresan eta pilotariak greban

Hala ere, pilota profesionala zurrumbilota batean dago murgilduta eta epaile baten erabakiaren zain. Olaizola eta Urrutikoetxeak ez zuten txapelketa ongi hasi, 2019an, baina behetik gora etorri dira. 2020ko martxoan, txapelketa geratu egin zen eta ordurako emaitza onak zituzten. Finalerdietarako sailkatu ziren eta hauek irailean eta urrian jokatu dira. Erakustaldia eman zuen Aimarrek lehenda-

biziko bi partiduetan, Urrutikoetxeak ederki lagunduta eta finalerako txartela lortu zuten hirugarren partiduetan zain egon gabe.

Bi partidu bakarrik gaur; Lasarten eta Hernanin

Aste honetan ere, koronabirusa sortzen ari den arazoak direla eta, C.D. Hernaniko pilotariak sei partidu baino ez dituzte jokatu eta guztiak Gipuzkoako Txapelketakoak izango dira.

Lau partida nabarmentzen

dira eta horietako bi jokatu dira gaur. Elizazu-Artolak, Lasarten jokatu dute, gaur, Intzaren kontra 16:15etan. Irabazitako azken fasea jokatzeko sailkatuko dira eta partidariak galdu gabe jarraituko dute.

Azkenik, hirugarren mailako bikote seniorrak, Salaberria-Ortiz de Urbinak, gaur jokatu dute Hernanin, Epleren kontra 16:30etan. Irabazitako azken fasea jokatzeko sailkatuko dira eta partidariak galdu gabe jarraituko dute. **K**

Hernanik gaur hasiko du denboraldia Euskal Ligan Jatorkideren aurka

Gasteizen jokatu dute, 19:00etatik aurrera, eta aurreneko taldea da konpetizioa hasten. Beste bost taldeak beranduago hasiko dira.

HERNANI BOLEIBOLA

Euskadiko Ligaren hasierarekin, senior mutilen taldea izango da denboraldiari ekiten aurrenekoa. Jatorkide taldeari egingo dio bisita Gasteizen, Aranalde kiroldegian, gaur 19:00etan.

Denboraldia gogorra espero da, gehiago osasun egoeraren ondorioz, konpetizio berarengatik baino. Taldeko arduradunek diotenez «egoera hau dugu beraz aurrera egin behar. Denboraldi hasiera ez da erraza izan, entrenamendu datak, ordutegia... arazo izan dira, iaz bezala, eta urte bete ondoren ez dugu gaia zuzendu».

Senior mutilek lesioekin

arazoak izan dituzte aurrendenboraldian eta ondorioz, lagun arteko partida bat soilik jokatu ahal izan dute. Bera Bera taldearen aurka izan zen pasaden aste bukaeran eta emaitza 3-2 izan zen donostiarren alde. «Garrantzitsua da jakitea non dauden gabezi haundienak, hauek izanik baloia jaso eta erasoak prestatzeko unea».

Neska seniorren taderik ez

Arazo guzti hauek izan arren, boleibolak sei talde osatu ditu aurtengo denboraldirako, zazpi garrena -senior neska-, ez atzeratzea erabaki da, entrenamendu ordutegiak kontuan izanik, baina datorren denboraldirako

taldea osatzea izango da helburua.

80 jokalarik sei taldetan banatuak daude eta helburua denboraldi ona osatzea da

Kirol arloa bigarren mailan geratu arren, helburua denboraldi on bat osatzea izango da eta taldeak 12-14 jokalariz osatuak izanik, badago indarra horrela izan dadin, 80 jokalarik inguru daude, eta horretarako lana egiten ari dira.

Infantil neskek bi talde izango dituzte aurreneko kadete neskek bezala, eta hauek azaroan edo urtarilean hasiko diren itzaroten daude. Foru Aldundiak eta Federazioak hartu behar dute erabakia. Jubenil neskek, urriaren 27an izango dute lehen partida, etxean, eta Irikierako txapelketakoa izango da, Aretxabaleko Arizmendi taldearen aurka. **K**

Bost partidu jokatu dira gaur frontoian

Nesken lau daude iragarrita goizeko 10:30etan hasita eta arratsaldeko 17:30etan mutilek bat jokatu dute lehen mailan.

HERNANI PALA

Asteburua pala partiduz josia dator eta gaur Hernaniko kiroldegiko frontoian bost partidu jokatu dituzte Hernaniko palistek. Goizean lau partidu daude iragarrita, denak neskenak, eta arratsaldean bakarrik, hau mutilena.

Jardunaldia 10:30etan hasiko da bi partidu potolorekin. Hernaniko bi talde, lehenengo nagusien mailan, Su-Berriren aurka neurtuko dira. Bi talde indartsu dira eta lehenengo partiduan Hernani 1, Su-Berri 1-en aurka ariko dira. Irazusta-

barrena eta Arrietak osaten dute bikote hay, baina aurrean aurrerik oso gogorrak izango dituzte. Galdu gabe daude bi bikoteak Gipuzkoako Txapelketan.

Ondoren, Hernani 2 eta Su-Berri 5-ek jokatu dute. Partidu hau ere lehenengo mailakoa da, nagusietan. Hernanik galdu egin zuen pasa den astean Su-Berri 1-en aurka eta irabazi behar du. Goizeko hirugarren eta laugarren partiduak jubilenenak dira. Hirugarrenean Hernani 1 eta Hernani 2 bata bestearen aurka ariko dira eta goiza itxiko dute Hernani 3 eta Mundarrok.

Arratsaldean mutilen txanda izango da. 16:30etan eskuzko partidua dago eta hori amaituta Altzatarrak eta Hernanik lehen mailako neurketa dute jokoan mutilen gomazko paletan. Partidu erakargarria da eta Hernani kanpoko bezala ariko da. **K**

Kiroldegiak lagunarteko bost partidu hartuko ditu asteburuan

Datorren asteburuan hasiko dira Ligak eta azken prestaketa lanak egingo ditu Hernanik etxean.

HERNANI ESKUBALOIA

Astebete baino ez da geratzen 2020-2021 denboraldia hasteko eta talde guztiak azken ukituak ematen ari dira prestakuntza lanetan. Horietako bat da Hernani eta oraingo jokatzeko hasi daitezkeen sei taldeak azken lagunartekoak jokatu dituzte gaur eta bihar.

Sei partidu horietatik, bostek etxean, Hernanik kiroldegian ariko dira eta gaur bertan lau partidu jokatu dira lehenengo pistana.

Goiztiarrenak kadete mutilen Hernani Leoka izango da. 10:00etan Donibanekoren aurka neurtuko dituzte indarrak eta eguerdian kadete neskek, Hernani Alaiak, hartuko die erreleboa. Hauek, Errenteriako Ereintzaren kontra dute partidua,



Jubenil neskek bihar jokatu dute kiroldegian.

12:00etan hasita.

Hurrengo bi partiduak arratsaldean izango dira. 16:00etan, kadete mutilen Hernani Sorlanek Leizaran izango du aurrez aurre eta amaitutakoan senior mutilak kantxaratu dira kiroldegiko lehenengo pistara. 18:00etan hasita, Hernanik Pasaiako Donibanekoren aurka

jokatu du partidu zaila eta azken entsegua.

Igandean bi partidu izango dituzte talde hernaniarrek. Jubenil neskek, 12:00etan, Ereintzaren kontra dute partidua kiroldegian eta jubenil mutilek, ordubete aurretik, 11:00etan, Pasai Donibanera egingo dute bisita. **K**

Garaipenik gabe, aurrenekoaren bila

Mundarroko mutilek astean zehar 50-81 galdu zuten Atlético San Sebastianen aurka eta bigarren taldeek Liga hasiko dute.

ASTIGARRAGA-HERNANI SASKIBALOIA

Astigarragako Mundarro eta Hernaniko taldeek ez dute nahi bezala, garaipenekin, hasi denboraldia eta asteburu honetan aurrenekoak lortu nahi dituzte, denak etxetik kanpo. Ez da erraza izango. Hori bai, Liga gehiago hasiko dira eta Mundarro eta Hernaniko bigarren taldeek lehenengo jardunaldia izango dute senior hirugarren mailan. Jubenil eta kadete taldeek oraindik ere zain egon behar dute denboraldia hasi baino lehen.

Honela, senior nesken lehen mailan, Mundarroko Mons-eko kiroldegian jokatu du CD Internacionalen kontra. Hori, bihar izango da eguerdiko 12:00etan. Partidu bakarrik jokatu du taldeak, orain arte, eta galdu egin zuen. Aurkariak bi

partidu jokatu eta biak irabazi ditu, liderra da eta zaila izango da garaipena lortzea.

Egoera berean aurkitzen da Hernani, senior gizonezkoen lehenengo mailan. Zarautzera egingo dute bisita, bihar arratsaldean. 18:15etan hasiko da partidua eta pasa den asteko partidua bertan behera geratu eta gero bi puntu batu nahi dituzte. Paper gainean, Zarautz maila pareko taldea da eta oreka espero da markagailuan.

Oreka hori asteartean falta izan zen Mundarro eta Atlético San Sebastianen artean. Donostiarrak jaun eta jabe izan ziren eta 50-81 gaintu zituzten astigarrak, Aieten jokatu zen partiduan. Hiru partidutan hiru porrot izan dituzte moreek. Asteburu honetan ez dute jokatu.

Bai Mundarroko eta bai Hernaniko bigarren taldeek gaur hasiko dute denboraldia hirugarren mailan. 16:00etan hernaniarrak Mons-en ariko dira Internacionalen kontra eta astigarrak, 16:15etan, Arrasaten jokatu dute Mondragon Unibertsitatearen kontra. **K**

Asteburuan ezagutuko du Hernanik bigarren jardunaldiko aurkaria

Palencia eta Iruñako La Únicak igoera jokatu dute. Ferrolek Vigoren lekua hartu du eta hurrengo astean Landarera etorriko da.

HERNANI ERRUGBIA

Denboraldia hasteko astebete faltan, Hernanik asteburu honetan ezagutuko du bigarren jardunaldian noren aurka jokatu duen. Egutegian, jardunaldi horretan, igoko den taldearen aurka lehiatzea suertatu zen eta Palencia eta Iruñako La Únicak jokatu dute postu hori astebu-

ru honetan.

Hasiera batean Ferrol ere aritzekoa zen postu horren bila, baina Vigok uko egin dio Oho-rezko B mailan jokatzeari eta beraz, postu hori beste galiziar taldearentzat izan da.

Honela, lehenengo jardunaldian, datorren astean Ferrol izango da Hernaniren aurkaria, Landaren.

Abonu kanpaina abian da Hernanik denboraldiari ilusioz ekin nahi dio eta horregatik, elkarrekin abonatu kanpaina jarri zuen martxan eta oraindik ere jarraitzen du.

Aurtengo berrikuntzen artean dago abonatu txartela webgunean bertan egin daitekeela <https://hernanirugby.eus/eu/ilusioz-bultzatzen/> estekan.

«Aurrera bultzatzen jarraitzeko indarrak ez dira eten», klubaren hitzetan eta 'ilusioz bultzatzen' «jarraitu behar da», aurtengo denboraldian. **K**

Juniorren Gipuzkoako Txapelketa, gaur Mendaron

Enekoitz Azparren faboritoetako bat da eta kadeteek berriz Lazkaomendin dute gaur lasterketa.

HERNANI-ASTIGARRAGA

TXIRRINDULARITZA

Garai honetan errepideko txirrindulariak oporretan egoten dira, baina aurten dagoen egokian denboraldia luzatu egin da. Horregatik urrian zehar lasterketan daude maila guztietan kadeteetara arte. Gainera, aurtengo urria hotz eta euritsu doa eta horrek entrenamenduak eta konpetizioa zaildu diete txirrindulariei. Hala ere, ez ditu gelditu arazi eta asteburu honetan Hernani eta Astigarragako txirrindulariek Gipuzkoan zehar

lasterketak izango dituzte.

Juniorrentzako egun garrantzitsua da gaurkoa. 16:00etan Mendaron Gipuzkoako Txapelketa-Javier Ezenarro Memoria-larik jokatu dute 84 kilometroko ibilbidean. Aurreko astean Enekoitz Azparren astigarrak duela bi aste Lazkaomendin irabazi zuen eta sasoi betean da goela erakutsi zuen.

Kadeteak Lazkaon, gaur 10:00etatik aurrera, korrituko dute Hesparru Proba. Aldapan gora, Lazkaomendin, amaituko dute lasterketa 64 kilometro osatu eta gero. Bertan egongo dira Aner Zilbeti, Unax Urretabizkaia eta Telmo Semperena besteak beste. Denboraldia gaur zortzi amaituko da Legorretan taldekako erlojukontra. Beraz, gaurkoa urteko azken lasterketa da linean. **K**

IRAGARKI MERKEAK

Etterako langilea behar dut adineko emakumea zaintzeko, asteburuetan ordu batzuk, berezko ibilgailua ezinbestekoa, hau gabe ez deitu, **676 946 094**

Iñigo Royo Masajista. Masajeta, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,.... Deitu: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

EGURALDIA



GAUR

Atzoko joerari jarraituz, itxura polita hartuko du eguraldiak gaur. Behe-lainoak agertuko dira goizean goiz, baina giro argia nagusituko da gero.
Min.6° / Max.17°



BIHAR

Giro eguzkitsua izango dugu bihar, eta gora egingo du tenperaturak. Hegoaldeko haizea ibiliko da goizean, eta ipar-ekialdera aldatuko da arratsaldean.
Min.8° / Max.20°


(euskaltel)

TELEFONO ZENBAKIAK

TAXIAK 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALZAINGOA** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA** 943 464622 **AUTOBUSAK** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **ANBULATORIOA** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

FARMAZIAK

Egunez: A. Etxebarria Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauz: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738**
Goizueta: Nagusia 64 948 514353



«Babes sare bat sortzen da zaintzaileen artean, eta askotan, kezka eta arazo komunak dauzkate»

Zaintza ardurak dituzten emakumeei zuzenduta, enpatia tailerra egingo dute gaur, 17:00etatik 19:00etara Iturolan, Elena Egiguren eta Leire Inza bitartekari eta abokatuen eskutik. Zaintzaileei «espazio seguru bat ematea» da helburua, «beraien antzeko errealitatea daukaten pertsonekin konpartitzeko».

HERNANI AMHER-UDALA

Zaintza ardurak dituzten emakumeei zuzenduta, saio berezia antolatu dute gaur, Amher elkarteak eta Hernaniko Udaleko Kulturartekotasun Sailak. «Pertsona horiek, askotan, bere burua zaintzea bigarren mailan utzi ohi dute; eta gehiegitan gertatzen da hori», adierazi dute.

Horregatik, Enpatia Zirkulua izeneko tailerra egingo dute Iturola Elkarlan Sorgunean (Florida auzoa, 28). Bi orduko saioa izango da, 17:00etatik 19:00etara, eta doakoa da partehartzea, baina izena eman behar da: Amherren bulegoan, 671 116 414 telefonoan, edota amher-sos_racismo@hotmail.com helbide elektronikoan.

«Konpartitzea da saioaren helburua, eta horrek badauka efektu lasaigarri bat»

Elena Egiguren eta Leire Inza bitartekari eta abokatuek gidatuko dute saioa. Eralda Bitartekaritzako kideak dira biak, eta aurreko larunbatean bertan egin zuten beste enpatia tailer bat, Tolosan. «Saio hauen helburua ez da konponbideak bilatzea, baizik eta konpartitzea, eta entzunak izatea. Kontatze eta konpartitze hutsak, badauka efektu lasaigarri bat», diote.

Izan ere, tailerrarekin bilatzen dutena da, «persona horiei espazio seguru bat ematea, beraien antzeko errealitatea daukaten pertsonekin konpartitzeko. Atzerritik datozenentzat da bereziki baliogarria. Babes sare

bat sortzen da beraien artean, eta askotan, daukaten kezka eta arazoak, komunak dira. Possible da, haietako bat kontatzen ari den bizipen horrek, beste batengan eragina izana noizbait, edo berari ere gertatu izana».

«Bakoitzaren sentimendu eta beharrak azaleratzen dira, eta ez dugu epaiketarik egiten»

Erronda batekin hasiko dute saioa, aditzera emateko «bakoitza nola dagoen eta nola sentitzen den». Aurkezpen erronda moduko bat da hori. Eta ondoren, ariketa bat egiten dute, «identifikatzeko azken egunotan bizi duten egoera edo gertakizun bat, non gaizki sentitu diren, edo beraientzat samingarria izan dena. Horrela, azaleratzen dira bakoitzaren sentimendu eta beharrak, eta jartzen dugu martxan zirkulua», azaldu dute.

Enpatia zer den eta zer ez den ere azaltzen diete, saioaren hasieran: «nola entzun behar dugun, eta epaiketarik eta kritikarik ez dela egingo».

Eta saioaren bukaeran, beste erronda bat egingo dute, ospakizunak eta doluak deitzen dutena.

«Konfinamenduan jarri genituen martxan enpatia zirkuluak, beharretik»

COVID-19aren pandemiak eragindako egoerak bultzatu zituen Egiguren eta Inza, ekimen hau martxan jartzera: «konfinamenduan hasi ginen enpatia zirkuluekin. Beharretik jarri genituen martxan, ikusi genuelako,



Leire Inza eta Elena Egiguren bitartekari eta abokatuek gidatuko dute gaurko tailerra. Eralda Bitartekaritzakoak dira biak.

«Konfinamenduan, herritar asko egon ginen gure etxean, familiarekin; baina zaintzaileak bakarrik zeuden; egoera honek bereziki ikutu ditu»

zaintza ardurak zituzten emakumeak lehenago ere isolatuta bazeuden, konfinamenduan are eta isolatuago zeudela», azaldu dute. Eta horren aurrean, enpatia gune horien beharra zegoela iruditu zitzaion.

«Konfinamenduan, herritar asko egon ginen gure etxean, familiarekin. Baina pertsona horiek bakarrik zeuden. Egoera

honek bereziki ikutu duen talde bat da zaintzaileena. Adineko pertsonekin egiten dute lan, eta segurtasun neurri gehiago eskatzen dizkiete, beldurretik; exijentzia gehiago dauzkate. Talde vulnerableagoa dira», diote.

Horregatik, uste dute enpatia tailerrak bereziki interesgarriak direla adinekoak zaintzen dituzten pertsona horientzat, helduentzako zentroetan lan egiten dutenentzat, gizarte laguntzailerentzat... «Haiengan sortzen dira behar eta kezka horiek, bereziki», nabarmendu dute.

Tolosan egin zuten saioan, «gehienak atzerritarrak» ziren, nabarmendu dutenez. Eta horrek are eta gehiago areagotzen du arazoetako bat: «bakardadea aipatu zuten asko, isolamen-

dua ere bai. Askoren egoera da, interno daudela. Eta arazoa da, daudela beraien herrialdetik urrun, senide eta lagunik gabe; eta bakardadetik daukate konpartitzeko», azaldu dute. **K**

ERRIOGUARDA - ENEA
J A T E T X E A

GAUR

ERAMATEKO MENUA
Barazki krepeak porru
kremarekin

Haragi gixatua menestran
Flana

10,50 €

Asteartetik aurrera menua iragarki
merkeetan aurkituko duzu

Iturriaga kalea, 10. Hernani
Tel: (943) 33 02 91